



XV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak.

📅 Mar 17, 2016 🌐 Sailkatu gabea 💬 0 comments



2016ko ekainaren 4an “XV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak” ospatuko da Donostiako Euskal Gastronomia Elkartean.

Antolaketa

Lehiaketa Batzordea honela osatuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiko

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko bi ordezkari eta Euskal Gastronomia Elkarteko ordezkari bat; eta bere egitekoa izango da “XV. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak” izeneko lehiaketa kudeatzea.

Sagardo lehiaketako epaimahaia bederatzi lagunek osatuko dute, ondoren zehazten den moduan:

- Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatua izango da epaimahaiburua.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak zazpi kide proposatuko ditu epaimahairako. Proposatutako kideak ENAC erakundeak egiaztatutako sagardoaren dastaketa paneleko kideen artean aukeratuko dira.
- Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko funtzionario batek, Antolaketa Batzordeko kide denak, egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin bana botorik gabe.

Izen-emateak

Sagardo naturala bakarrik onartuko da. Sagardo naturala egiten duten enpresek Gipuzkoan kokaturik egon behar dute eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan izena emanda; horrez gain, Botilaratze Erregistroa eta Osasun Erregistroa eduki behar dituzte.

Errolda eta erregistro agiri horiek **2016ko apirilaren 15eko 14:00ak baino lehen** lortu behar dira, orduan bukatzen baita eskariak aurkezteko epea.

Eskaria, behar bezala beteta, helbide honetara bidali behar dira:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua

Landare Alorreko Unitatea

Gipuzkoa plaza z/g – 20004 Donostia

Telf: 943112183 – Fax: 943426920

Laginak jasotzea

Antolatzaileek, sagardotegi bakoitzean, kupeletik zuzenean hartuko dituzte laginak.

Lagin bakoitzeko bi botila laborategi enologiko ofizial batera bidaliko dira, analiza dezaten.

Sariak

Lehiaketan finalista geratzen diren lehenengo hiru honako sari eta garaikurrak emango zaizkie:

- Lehenengo saria: 3.000€, txapela eta garaikurra.
- Bigarren saria: 1.500€ eta garaikurra.
- Hirugarren saria: 1.000€ eta garaikurra.

Lehiaketaren finalera iritsi diren gainerako lehiakideei diplomak emango zaizkie.



Bilatzailea

Bilatu

Kategoriak

- Agenda
- Argitalpenak
- Azokak
- Berriak
- Ekitaldiak
- Erakusketak
- Esperientziak
- Formazioa
- Gastronomia
- Historia
- Kultura
- Lehiaketak
- Museoak
- Sagardoa
- Sagardotegiak
- Sagarra
- Sagastia
- Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea▼

ZATOZ ETA GOZATU



**SAGARDOAREN
LURRALDEA**
el territorio de la uva

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

LAGUNTZA BEHAR DUZU?

☎ 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

Beste proposamenak hemendik gertu

Nola mugitu

Non lo egin

Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Nola iritsi eta sarbideak

Tarifak eta ordutegiak

Bisita erreserbatu

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

Informazio orokorra

Argazkiak

Hitzaldiak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

Boletina

Buletinera harpidetza

Sare sozialak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA



NOR GARA

PROIEKTUAK

AKORDIOAK

KONTRATATZAILEAREN PROFILA